


Garapenerako Lankidetzaren
Euskal Agentzia



Hezkidetzan hezitzeko gida



(H)ABIAN

GIZARTE ERALDAKETARAKO
HEZKUNTZAREN ESTRATEGIA

ESTRATEGIA DE EDUCACIÓN PARA
LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Argitaraldia: 2018ko urria

www.elankidetza.euskadi.eus

Metodologiaren gida- bilduma:

1.zk. Hezkidetza

Argitaratzaileak:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Egileak:

Ibai Fresnedo – Arremanitz Kooperatiba

Maketazioa:

Curruscu

 **creative
commons**



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena (1go or.)

2. Hezkidetzaren gakoak eta erronkak (2. or.)

2.1 Hezkidetza: parekidetasuna bermatzeko pedagogia

2.2 Hezkidetzaren erronkak

3. NItik GUra (5. or.)

3.1 Curriculum ezkutua

3.2 Konpromiso pertsonalak

4. GUtik MUNDUra (9. or.)

4.1 Ildo estrategikoak eta inplikazio kolektiboa

4.2 Ildo estrategikoak zehatzak

5. Hezkidetza (11. or.)

5.1 Hezkidetzarako lan metodologiak

5.2 Estrategia eta ekintza hezkidetzailleak

6. Baliabideen kutxa (14. or.)

6.1 Bibliografia

6.2 Baliabide pedagogikoak

6.3 Webgune interesgarriak eta bideoak

1. Aurkezpena

(H)ABIAN 2030 eraldaketarako hezkuntza-estrategiaren esparruan, ikuspegi metodologikoek oso dimentsio garrantzitsua hartzen dute, eta indar-lerro hauen bidez adieraz daitezke:

2. Indar-ideia

Gizarte-eraldaketarako strategiaren ikuspegi politiko-pedagogikoen txertaketa sustatzea eta indartzea

3. Indar-ideia

Eskubideen txertaketa sustatzea eta indartzea

4. Indar-ideia

Tokiko eta mundu-mailako ikuspegiaren txertaketa sustatzea eta indartzea

Agenteen arteko topaketak eta praktikatik abiatutako ikaskuntzak ere ezaugarritzen dute gizarte-eraldaketarako estrategia. Bada, horri begira, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak hezkuntza-arloko agenteekin elkartzeko zenbait topaketa egitea proposatu du, eta, topaketa horietan, hausnarketak, planak, ikerketak eta esperientzia zehatzak partekatu dira. Heziketa Topaketa da elkargune horien izena, eta, horietan, planteatu diren esperientzien, ibilbideen eta ikerketen inguruko baterako ikaskuntzak eratzeko tokia ere egon da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ARAR 2017-2020 ekintza-planean jasotzen da Heziketa Topaketen ekimena, ekintzarako prestakuntzaren lerroaren barruan.

Gida honekin, hainbat argitalpen eta ikus-entzunezko ateratzen hasi ginen, askotariko ikuspegi metodologikoak txertatzeko gakoak, ikusmoldeak, metodologiak, estrategiak eta baliabideak emateko xedez.

Zehazki, 2017ko urriaren 27ko Heziketa Topaketan metodologia hezkidetzaillearen gainean atera ziren hausnarketekin eta ikaskuntzekin, bai eta Arremanitzen ekarpenekin ere, prozesu hezkidetzailleak abiatzeko lan-gida hau egin dugu. Gida hau osatzeko, horren laburpen-bideoa daukazu, hemen kontsultatu dezakezuna, eta, halaber, Heziketa Topaketa horretan partekatutako informazioa begiratu dezakezu.

2. Hezkidetzaren gakoak eta erronkak

2.1 Hezkidetzaren parekidetasuna bermatzeko pedagogia

Gaur egungo jendartea oraindik ere, androzentrikoa dela esan genezake, eta jendartearekin batera, nola ez, gure eskola, familia, harreman-sareak, esaterako. Gainera, neskek zein mutilak identitate osoa garatzeko, behin eta berriz oztopoak izaten jarraitzen dute.

Egun, **mutilak** gizontasun-eredu jakin eta zurrun bat bizitzera behartuta sentitzen dira, jendarteak, eskolak eta taldeak berak ezartzen dizkien balioen eta jarreraren ondorioz.

HEZKIDETZA, PERTSONA BAKOITZAREN BANAKOTASUNAREN ETA BEREZITASUNEN ARABERA, GENEROTIK AT EGITEN DEN HEZKUNTZA DA.

HEZKUNTZA HEZKIDETZAILEAK ESAN NAHI DU, IRIZPIDE SEXISTAK ALBO BATERA UTZIZ, EMAKUMEEI ETA GIZONEI EGOKITUTAKO ROLAK, PORTAERAK, JOKAERAK, BALOREAK ETA ABAR KONTUAN HARTU GABE HEZTEA.

HELBURUA, PERTSONA AUTONOMOAK HAZTEA DA, BAKOITZA BERE BIZITZA PROIEKTUAREN JABE IZATEKO ETA INGURUAREKIN ELKARBIZITZAN BEHAR DIREN GAITASUNAK GARATU AHAL IZATEKO.

Neskei, aldiz, jendartean baloratzen diren gaitasunak mutilenak direla esaten zaie eta, aldi berean, "benetako" emakume izateko feminitatea garatu behar dutela. Horrela, bada, hezkuntzak jendarte-egiturak errepikatzen eta egonkortzen ditu.

Hezkidetzak, hein batean, jendarte androzentriko horren egiturak eraitsi nahi ditu, eta neska eta mutil izateko ereduak malgutu. Horregatik, pertsona bakoitzaren banakotasunaren eta berezitasunen arabera, generotik at egiten den hezkuntza moduan definitu dezakegu hezkidetzaren.

Hezkidetzak, beraz, sexutik harago, denon gaitasunak garatzen laguntzen du eta erraztu egiten ditu identitate zabalak eraikitze bideak. Etorkizun alternatiboa lortu nahi duen hezkuntza da eta, ildo horretan, neskentzat eta mutilentzat aukera berdina izango dituen jendartea lortu nahi du.

Hezkidetzaren hainbat ezaugarri:


■ Pertsonaren garapen osoa eta integrala eremu guztietan ahalbidetzen du; pentazitatearen proposamenaren bidez: identitatea, arlo soziala, adimena, gorputza eta emozioak direlarik.

■ Pentsatu, sentitu eta egiten denaren arteko barne koherentzia bultzatzen du, norbere buruarekiko zein jendartearekiko kritikotasuna garatzeko.

■ Parekidetasunean oinarritutako elkarbizitzarako konpetentzien garapenean lagungarria da.

■ Norberaren bizitzan, etxeko esparruan, lagunaren artekoan zein profesionalean konpetente izateko prestatzen gaitu.

■ Pertsona bakoitza norbere ikaskuntza-prozesuaren eragile nagusia izatea sustatzen du.



2.2 Hezkidetzaren erronkak

Hauek dira hezkuntza-komunitatearen erronka nagusiak hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko:

Metodologikoak:

- Eskola mistoak hobetzea eta sendotzea, benetako eskola hezkidetzailleetan bilakatuz; nahiz eta noizean behin, mutil zein nesken talde ez mistoak sortu gai edota jarrera zehatzak lantzeko.
- Hezkidetzaren bera eskola mistoaz haratago doan proposamen bat bezala ulertzea; eta batez ere, curriculum formalean, informalean zein ezkutuan eragitea.
- Hezkidetzaren oinarritutako ereduak sakon aztertzea, eta genero-ikuspegia hezkuntza komunitateko kultura eta praktiketan sartzea, planteamendu integral batez.
- Haur eta nerabeak bizitzan bidea aukera dezaten orientatzea, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapenik gabe.
- Hezkidetzaren ikasgeletatik kanpo ere ateratzea; alegia, familiak eta ingurune soziala hezkuntza-prozesu osoan txertatzea, ikasleak ikastetxean bizi duenaren eta etxean bizi duenaren artean hausturarik gerta ez dadin.

Kontzeptualak:

- Feminismoari buruzko aurreiritzi negatiboak albo batean uztea eta pedagogia feministen behar iraunkorra bermatzea, "berdintasun faltsua"-ren ideia gaindituz.
- Hezkuntza sistemaren eredu androzentrikoa gainditzea eta maskulinitate bortitzaren ereduak errotik kentzea, maskulinitatearen ordezkotzat beste eredu batzuk indartuz.
- Historian zehar emakumezkoek egindako aportazioak eta jakintzak barnebiltzen dituzten material didaktikoak eta kurrikularrak erabiltzea, tradizionalki emakumezkoen atxikitako balio positiboak txertatuz.

Konduktualak:

- Bizikidetzaren eta tratu onetan oinarritutako harreman afektibo-sexualak izateko, aniztasun sexuarean eta genero parekidetasunean oinarritutako balio eta jarreretan hezteko.
- Hezkuntza-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, sexu eta genero indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.
- Hezkuntzaren erabilera ez sexistak sustatzea, eredu sexistak eraldatzeko mekanismoak txertatuz eta jarrerak zein jokabideak sistematikoki errebisatuz.

3. NItik GUra

3.1 Curriculum ezkutua eta konpromiso pertsonalak

Curriculum Ezkutua, pentsamenduaren eraikuntza, balorazio, esanahi eta sinesmenen multzo barneratu eta ikusezina da, gizonak eta emakumeak eta haien arteko harreman eta praktika sozialak eraikitzen, egituratzen eta determinatzen dituena. Kulturen nonahi dagoen heinean, instituzio sozialen zein banakoen parte da, kanpo eta barne mailan.

Horregatik, hezkidetzaren lanketa integrala bermatzeko, pentsamendu kritikoaren garapena eta autokritika egitea oinarritzkoak dira.

Curriculum Ezkutuaren egitura, oharkabean lan egiten duen zerbait dela esan daiteke, hau da, norberaren barnean lanean ari diren indar moduko batzuk. Gauzak horrela, egitura hiru ataletan banatzen da:

- Batetik, **ikusezina da**, hau da, ezin da ikusi, "naturala dena" berezkotzat hartzen delako, zalantzan jartzeko jarrera kritikorik gabe.
- Generoaren araberako arau eta eskakizunetan aurkitzen dugu: sozialki onartuak eta aitortuak diren posizio edo jarreretara egokitzen den pertsonari esleitutako **aitorpen sozial eta balorazio-itzaropenetan ikus dezakegu**.
- Arrakasta/porrotaren aukera eta esfortzu pertsonal eta laboralaren balorazio eta errekonozimendua: sexu bakoitzetik inguruan espero den eta baimentzen zaion horretan gertatzen diren **gaitasun eta trebetasunen ikasketa-metodo inplizitu eta esplizituetan** datza.

**Balio demokratikoen
esparrua lantzen dugunean.**

Adibidez; "errespetua" bultzatzen dugunean, nahi gabe haur/nerabe bat taldearen aurrean gutxiestea. Edota "aniztasuna" lantzen dugunean, androzentrismoan/etnozentrismoan/heterozentrismoan erraz jautzea.

Alegia, hezkuntzaren esparruan balioen sistema lantzen dugunean, askotan gu gara balio horien transmisioan hanka-motz gabiltzanak eta inkoherentzietan erortzen garenak.

**Balio moral eta erlijiosoak
lantzen ditugunean.**

Adibidez; gatazkaren konponketaren bat kudeatzen dugunean "kulpa" eta "barkamena"-ren kudeaketa egokia egitea ahazten dugunean.

Edo beste pertsonen desio, gustu eta erabakiak inkoherenteki "ongia" eta "gaizkia"-ren arabera epaitzen ditugunean.

**Noiz
agertzen da?**

**Gure buruari eraikitzen ari garen
jendarteari buruz galdetzen diogunean.**

Adibidez; askotan pentsamendu aurrerakoi eta garaikidearen izenean, eredu tradizionala bultzatzen duten horien aurrean, tresna eta estrategia tradizional berdinekin jokatzeko moduak erabiltzen dituguz.

Eta hau nahiko kontraesankorra da.

**Komunikazio modu berriak
ezartzen direnean.**

Adibidez; gure inguruan komunikaziorako modu gertukoagoen eta parekideagoen aldeko apostua dagoenean eta guk erresistentziak ditugunean. Esaterako, lengoia inklusiboaren txertaketan egon daitekeen frustrazioagatik estrategia bera gutxiestea; parte-hartze orekatsua eta horizontalarekin arazoak edukitzea; edo gertuko komunikazioan gorputzaren erabilera areagotzeagatik deseroso sentitzea...

**Gure pentsamendua modu
zehatz (eta bakar) batean
adierazten dugunean.**

Adibidez; gure eztabaidarako argudioak hertsia eta mugiezinak direnean eta burugogorkerietan jauzten garenean. Hezkidetzaren oinarrian asertibitatea, entzuketara aktiboa eta adostasuna presente daudela ahaztuz.

3.2 Konpromiso pertsonalak

Zure curriculum ezkutua agerian jartzea nahi duzu?

Bete ezazu ondorengo inkesta autokritikoa!

		INOIZ EZ	GUTXI	ASKOTAN	BETI
1	Ikuspegi feminista kontuan hartzen duen hezitzailea kontsideratzen al zara? Noiz eta zein egoeratan hartzen duzu kontuan hau?				
2	Sexuaren araberako espektatibak ez eraikitzen saiatzen zara? Hala ez bada, zehazki zein espektatiba mota eraikitzen dituzula uste duzu?				
3	Neska eta mutilak berdin tratatzen dituzula uste duzu? Hala ez bada, zergatik uste duzu desberdin tratatzen dituzula?				
4	Errieta egiterakoan, neska eta mutilei berdin egiten al diezu? Uste duzu errieta egitea praktika hezkidetzaillea dela?				
5	Haur eta nerabeekin lanean aritzerakoan ikusitako portaera sexistak kritikatzten dituzu? Portaera sexista hauek jazotzen direnean esku-hartzen duzu? Nola?				
6	Genero rolak aldatzeko jarduerak aurrera eramaten dituzu? Zeintzuk dira jarduera horiek? Nahikoak direla uste duzu?				
7	Sexista ez den lengoia erabiltzen al duzu? Ba al duzu irizpide zehatzik lengoia inklusiboa erabiltzeko? Zeintzuk?				
8	Eredu eta erreferente femeninoak erabiltzen al dituzu egunerokoan? Nolako da eredu horien transmisioa kuantitatiboki zein kualitatiboki?				
9	Errendimendu eta ahalegin berdina eskatzen diezu neskato eta mutikoei? Ba al duzu irizpide zehatzik errendimendua lan produktiboetatik haratago lantzeko?				
10	Zure inguruko hezitzaileak neska ala mutila izan, berdin baloratzen dituzu? Hala ez balitz, zertan ez dituzu berdin baloratzen? Zereginetan? Jarreretan?				

Zure curriculum ezkutuz jabetzeko hainbat argibide:

Gehienetan erantzun baduzu:

BETI

Zure hezkidetzarekiko konpromisoa agerian dago. Beraz zorionak! Baina ez ahaztu pentsamendu kritikoa eta autokritika garatzen jarraitzea ezinbestekoa dela. Zu zara eragile, zu zara gakoa!

ASKOTAN

Ez etsi, eta eutsi horri! Bidean zaude, eta mundua parekideagoa bilatzeko duzun gogo nabaria da. Hala ere, gaiarekiko dituzun ahulguneak edota baliabide falta ondo aztertu eta laguntza eskatu zure ingurukoei; praktika hezkidetzailleekin zipriztinduz.

GUTXI

Gogoratu ez zaudela bakarrik lan polit honetan. Gutxitan bada ere, bidea egiten hasia zara, eta hori da garrantzitsuena. Gure gomendioa hau da: jarraitu zure burua formatzen, zure kezak eta zalantzak zure kideekin elkarbanatzen, eta nola ez, hilabete batzuk barru bete ezazu berriro ere inkesta hau; ikusiko duzu zenbat hobetu duzun!

INOIZ EZ

Lan handia dago egiteko zure eragite esparruan. Beraz, ez galdu pazientzia eta trebatu zaitetz hezkidetzan!

4. GUTik MUNDUra

4.1 Ildo estrategikoak eta inplikazio kolektiboa

Norberaren curriculum ezkutua indibidualki behatzearekin eta aztertzearekin ez da nahikoa izaten; hau dela eta, honetan, inplikazio kolektiboa ezinbestekoa da. Jendartearen eta hezkuntzaren eraldaketarako eragile garen heinean, estrategia kolektiboak martxan jarri behar ditugu.

Talde bizipena sustatzea

Talde ekintza estrakurrikularren bidez komunitate sentimendua eraikitzea; identitate sozialen banakotasuna kontuan hartuta, eztabaida eta elkartrukatze taldeak sortuz.

Autoebaluazio kolektiboa egitea

Zeinak elkarrekiko ebaluazioa ahalbidetuko duen, non autokritikaren espermentazioa lantzen den.

Hezitzaile taldeen estrukturaketak eta botere harremanak simetrikoki berreraikitzea

Hezitzaile taldeen funtzioak, ardurak, rolak, parte-hartzea eta bestelakoak aztertu eta horizontalizatu/orekatu; pertsonen arteko botere harremanak simetrikoki eraikiz.

4.2 Estrategia zehatzak

1) Hezitzaileei zuzendutako formakuntza tailerrak antolatzea

Adibidez,

Eskola zein familiarteko praktika hezitzailearen berrikuspenerako tailerra, Genero historia pertsonalaren berreskurapenerako tailerra, Sexu eta Genero sistemaren bitartez estereotipoei aurre egiteko kritikotasuna lantzeko tailerra.

2) Kideen artean ezberdintasunak aurkitzea eta zuzentzea

Esaterako, esku-hartze hezigarria bera, antolaketa eta kudeaketarekin lotutako funtzioak eta ardurak, amatasun/aitatasun baimenak, soldata eta kontratazioen praktika eta politikak.

3) Ikerketa eta heziketa lanetako ebaluazio eta baloraziorako irizpide esplizituak lantzea.

4) Heziketa prozesu hezkidetzaileetan gizonen parte-hartzea bultzatzea.

5) Testu ez androzentrikoak sortzea eta orain arte sortutako testuen berrikuspenera bultzatzea.

6) Generoaren ikerketak eta genero lanak aplikatzeko interesa dutenak babestea, eta haien lanak gure egitearen zentzora ekartzea, informazio gaurkotua izan dezagun.

5. Hezkuntza parekidea

5.1 Hezkidetzarako lan metodologiak

Hezkidetzak lantzeak lan kontziente bat eskatzen digu, ez baita nahikoa hezkidetzak landu nahiarekin. Zoritxarrez, egun oraindik, denok jendarte sexista batean sozializatuak gara eta beste eredu bat eskaini ahal izateko ezinbestekoa da modu kontziente batean prestatzea dena. Horretarako uneoro betaurreko more berezi batzuk jantzita eraman behar ditugu, eta ondorengo faseak txertatu:

1.Urratsa. Errealitatearen azterketa (diagnostikoa) egingo dugu

Aztertuz...

- Zein den hezitzaileen curriculum ezkutua
- Zenbat neska eta zenbat mutil diren
- Neska eta mutil horien errealitatea zein den
- Zelako harremanak dituzten
- Zertarako zuzentzen diren besteari
- Zer nolako parte hartzea duten batzuek eta besteek denok batera gaudenean
- Zer nolako espazioa dugun eta nola egoten den banaturik haien artean
- Zer nolako baliabide pedagogiko ditugun (eta zer bultzatzen duten)
- Nola banatzen duten materiala beraien artean
- Zeintzuk diren liderrak eta zeintzuk baztertuak (botere harreman asimetrikoak)
- Nola banatzen ditugun gure artean rolak eta funtzioak hezitzaileok
- Nolakoa den hezitzaileen arteko harremana
- Nolako estrukturaketa dugun gure hezkuntza proiektuaren antolaketan eta kudeaketan, parte-hartzean eta erabakiguneetan

2.Urratsa. Programazio hezkidetzaille bat diseinatuko dugu

Zehaztuz...

- Diagnostikoaren ondorioetatik lortu edota aldatu nahi duguna
- Helburu zehatzak (errealak, egingarriak eta taldearen ezaugarrietara eta aniztasunera moldatuko ditugunak)
- Helburu bakoitzari lotutako ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak
- Zein metodologia erabiliko dugun
- Edukien aukeraketari buruz hartutako erabakiak eta eduki hauen antolaketa
- Jarduera eta ekintza motak
- Ikasle/erabiltzaileen taldekatzeak nola egingo ditugun
- Zeintzuk izango diren erabili beharreko baliabideak
- Denboren eta espazioen antolaketa
- Hezitzaile eta ikasle/erabiltzaileen eginkizuna (parte-hartzea, funtzioak, rolak,...)

3.Urratsa. Ebaluaketa zintzoa eta zehatza egingo dugu

Ebaluatuz...

- Diseinatutako ebaluazio irizpideak (zer nahi dugu ebaluatu? zertan zentratuko gara?)
- Diseinatutako ebaluazio adierazleak (kuantitatiboak/kualitatiboak - errealak eta ebaluagarriak)
- Parte hartze eta inplikazio indibiduala zein kolektiboa
- Zehaztutako helburuekiko koherentzia
- Erabilitako metodologiarekiko koherentzia
- Erabilitako baliabideak
- Erabilitako ebaluazio tresnak (galdetegiak, idatzizko probak, ahozko probak, banakako nahiz taldeko lanak, behaketa fitxak, kontrol-galderak, ebaluazio dinamika zehatzak,...)

5.2 Estrategia eta ekintza hezkidetzailleak

- **Mutilek eta neskek, berez, portaera sexista jakin bat izan behar duten iritzia baztertea.**

Adibidez, "neskek, neskek direlako, eta mutilek, mutilak direlako, beste izaera batekoak izan behar dutela pentsatzea; horretarako eskema tradizionalak hausteko eztabaidak edota ekintzak programatzea oso beharrezkoa da".

- **Neskek gehiago entzutea, eta beren iritzia mutilenak bezainbeste baloratzea, baita indartzea ere**

Adibidez, "askotan hain hezitzaileak izaten diren elkarrizketa informal batean moderatzaile papera hartu genezake hezitzaileok, eta mutilak elkarrizketan gailentzen ari badira, neskei hitza eta protagonismoa eman".

- **Mutilak eta neskek sexu jakin bati esleitzen zaizkion jardueretan parte hartzea bultzatzea, bai batzuk bai besteak animatuz.**

Adibidez, "neskak publikoaren aurrean hitz egitera animatu eta mutilak, berriz, eskulanak egitera."

- **Parte-hartze mistoak** eta nagusitasun mistoak txandaka sustatzen saiatzea, nesken parte-hartzeak nabarmenduz, urriagoak baitira.

Adibidez, "ekintzaren batean boluntario bat behar denean eta hauetako gehiengo mutila denean, neska bat aukeratu boluntario-lanak egiteko."

- **Adibide estereotipaturik ez erabiltzea, aniztasuna bermatzea** eta ez-ohikoak diren errealitateak ikustaraztea.

Adibidez, "nesken kirol talderen bat ezagutzuz gero, horiek animatzera eta babesa ematera joan gaitezke."

- **Esku-hartzeari dagokionez, taldeko nagusitasuna eta protagonismoa ez duten pertsonak** ere kontuan hartzea; denbora eta baliabide espezifikoak ahalbidetuz.

Adibidez, "gutxi nabarmentzen direnei denbora, hitza eta protagonismoa eman. Kontuz egin beharko dugu ez badugu nahi haur edo nerabea lotsatuta sentitzea."

- **Bizitzaren jasangarritasuna bermatzen dituzten lan erreproduktiboen eta erantzunkidetasunaren lanketa egitea; zaintzaren eta justizia etikoaren kontzeptuak azpimarratuz.**

Adibidez, "egunerokoan egiten diren zaintza lanen zerrenda bat eginez eta hauen garapenean norbanakoen inplikazioa aztertzea."

- **Konfiantza guneak** sortzea, non malgutasuna eta testuinguru bakoitzaren moldaketa ardatz izango diren.

Adibidez, "programatutako ekintza labur batean eztabaida pizten bada, eta parte-hartzaileak eroso eta disfrutatzen ikusten baditugu, ez dugu zertan giro hori moztu behar, gure helburuak lehenetsiz. Giro emozional sakonean murgildu bagara, konfiantza probestu dezakegu lanketa kognitibo sakonago bat egiteko."

- **Harreman interpertsonalen dimentsio emozionalaren** lanketan indarra jartzea, tratu onen beharra azpimarratuz

Adibidez, "autoestimua eta errespetua zeharka lantzea edota asanblada emozionalak antolatzea, non bakarrik emozio eta sentimenduen elkartrukaketa egingo dugun".

- **Lanbide orientazio ez sexistaren** lanketa egitea.

Adibidez, "lanbide feminizatuei balioa emanez, kristalezkoa sabaiaren eta soldata arrailaren fenomenoak landuz edota enplegua eta lanaren arteko desberdintasunak erakutsiz".

6. Baliabideen kutxa

6.1 Bibliografia

["Astialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta"](#)

EMAISIA ELKARTEA eta URTXINTXA ESKOLA. Bilbo, 2004.

["Baliuetan hezteko koadernoak-Hezkidetza astialdian"](#)

BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA. Bilbo, 2012.

["Betaurreko moreak gida"](#)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Donostia 2018.

["Eskoletako kanpo espazioak eta hezkidetza"](#)

FARAPI ANTROPOLOGIA APLIKATUA. Hernani, 2003.

["Euskara eta diskriminazio sexuala"](#).

ALVAREZ URIA, Amaia. Jakin. No. 142. 2004.

["Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko gida metodologikoa"](#)

EMAKUNDE-Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 2001.

["Gipuzkoako nerabeentzako ekipamenduetan genero ikuspegia barneratzeko oinarrizko gida"](#)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Donostia 2012.

["Hezkidetza astialdian"](#)

EMAKUNDE. Vitoria-Gasteiz, 1997.

["Hezkidetza Gida"](#)

APODAKA,M, GONZALEZ,M y UGARTE,B. Bilgune Feminista. 2008.

["Hezkidetza Gida"](#)

Txorierriko Mankomunitatea.

["Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana"](#)

EUSKO JAURLARITZA 2013.

["Jarduera hezkidetzailerako eskuliburua. Erabilera hezkuntza ez formalean"](#)

EMAISIA ELKARTEA eta URTXINTXA ESKOLA. Bilbo, 2000.

["Oinarrizko hezkuntzako ikastetxeetan hezkidetza eta genero-berdintasunaren plana lantzeko gida"](#)

EREIN. Donostia 2015.



6.2 Baliabide pedagogikoak

["130 propuestas para la coeducación"](#)

Instituto de la Mujer

["Afektua eta hezkidetzaren lehen hezkuntza"](#)

Eusko Jaurlaritza

["Alu-Ulu antzerki foroa"](#)

Arremanitz Kooperatiba

["Coeducación 2.0"](#)

Junta de Andalucía

["Gazteak eta berdintasuna"](#)

Eusko Jaurlaritza

["Guía de coeducación"](#)

Ministerio de Igualdad

["Guía de recursos de Coeducación"](#)

Gobierno de Asturias

["Hezkidetzaren bidea"](#)

gida – STEE-EILAS

["La coeducación y la gestión de la diversidad en las aulas"](#)

Joana Bou, Lidia Casanovas, Sara Carro eta Neus Andreu Monsech.

["La educación sexual de niñas y niños de 6 a 12 años"](#)

Ministerio de Educación

["La mochila violeta - Guía de lectura infantil y juvenil no sexista y coeducativa"](#)


Natalia Enguix Martínez eta Cristina López Torres

["Ortzadar gara"](#)

STEE-EILAS sindikatua

["Titiriteroen ipuinak"](#)

Bizkaiko Urtxintxa Eskola



6.3 Webguneak eta bideoak

<http://zubiakeraikitzen.blogspot.com>

<https://sites.google.com/a/b03sestao.es/hezkidetzaren-b03-sestao/helbide-interesgarriak>

<https://www.marianmoreno.com/>

<http://blog.educastur.es/correlavoz/>

<http://minoviomecontrola.blogspot.com/>

<http://beldurbarik.org/eu/>

<http://www.emakunde.euskadi.eus/informazioa/nahiko/u72-conahiko/eu/>

<http://lanaranjadelazahar.blogspot.com/>

<http://www.educarenigualdad.org/>

<http://www.bilbao.eus/geubiok/>

<https://www.youtube.com/watch?v=SDUaj3xDebA>

<https://www.youtube.com/watch?v=ZuTX2aC6gos>

https://www.youtube.com/watch?v=b9ny_AQMaeA